

**SAN SEBASTIAN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA-REN
INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO ERAGILEEN BI PLAZA
BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ETA LANGILE
PREMIA EZ IRAUNKORRAK BETETZEKO LAN POLTSAREN
SORRERA.****LEHENENGOA. DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honen helburua da INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO ERAGILEEN bi plaza betetzea SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA Sozietatean.

Era berean, INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO ERAGILEEN Lan Poltsa bat sortuko da, Hautaketa-prozesua gainditu baina postua lortu ez duten hautagai horien artean, Sozietatearen langile behar ez iraunkorrek betetzeko..

Lan-poltsa hau sortuta, hautaketa-prozesua bukatu bezain laster automatikoki ondorerik gabe geratuko dira aurreko informazio eta harrera kudeatzaileen (lehen horrela deitzen zitzaion postu berdinari) lan-poltsak.

Deitutako lanpostuari izendatutako eginkizunak organigraman jasotakoak dira:

- Aurrez aurreko eta bertaratu gabeko publikoari arreta eta orientazio turistikoa ematea.
- Helmugako informazio turistikoa kulturala eta baliabide praktikoak ematea.
- Hiriko produktu eta zerbitzu turistikoen sustapena eta salmenta.
- Informazioa eguneratzea, bisitaria bikaintasunez orientatzeko.
- Bisitarien eskatutako produktu eta zerbitzu turistikoei buruzko informazio bilketa.
- Informazio eta harrerako zerbitzuaren kudeaketa administratiboa.
- Asebetetze-galdetegiak eta bisitariak jakinarazitako gorabeherak erregistratzea eta haien berri ematea.
- Kexen eta erreklamazioen izapidetzea kudeatzea.
- Bisitak erregistratzea Turismo Bulegoen Euskal Sarearen (Itourbask) programan, txostenak eta estatistikak egiteko.
- Eskerak izapidetzean eta materiala prestatzean, biltegiaren kudeaketa administratiboa egitea.
- Profesionalei eta hornitzaileei bulegoan harrera egitea.
- Aldi baterako langileei edo praktikaldian dauden langileei laguntzea/tutoretza egitea, eskaintako zerbitzuen kalitate-estandarrek bermatuz.
- Zerbitzua ematea bisitariaren harrera-bulegoetan eta kongresuetan eta jardunaldietan gaitutako guneetan.
- Lanpostua betetzeko beharrezkoa den lanbide-prestakuntzaren arabera ezartzen diren funtzio guztiak.

2019an lanposturako izendatutako ordainsaria 30.743,72 eurokoa da (gordin urteko).

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Dagokion hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute partaidetza-eskaerak aurkezteko epea bukatzean ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsonak:

- A) Nazionalitatea: Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea edukitzea edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio librea aplikatu dakioken Estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Aurreko paragrafoetan sartzen ez diren atzerritarrek, halaber, har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xede den jardueraren egiteko administrazio-baimena kontratua gauzatu aurretik eduki beharko dute.

- B) 18 urte beteta izatea. Nolanahi ere, dagokion kontratua formalizatzeko egunean hautagaiak ezingo ditu 65 urte beteta izan.

- C) Jarraian zehazten diren betekizunen arabera eska daitezkeen tituluak izatea, edo tituluak eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea:

- C.1) **PRESTAKUNTZA:** Informazioa, arreta eta komertzializazio turistikoa edo ikasketa baliokide batekin zerikusia duen espezialitateetan Teknikari (Erdi-mailako Lanbide Heziketa) edo Goi-mailako teknikari (Goi-mailako Lanbide Heziketa) titulu ofiziala izatea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

C.2) **HIZKUNTZAK:**

- **Euskara:** euskara B2 mailan dakiela egiaztatzeko ziurtagiria edo parekoa, edo, hala badagokio, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeetik salbuestekoa) ezarritako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria.

- **Ingelesa:** ingelesa B2 mailan dakiela egiaztatzeko ziurtagiria edo parekoa.

Baldintzak esleitutako lanpostuaz jabetu arte mantenduko dira, eta prozesutik edozein unetan baztertu daitezke baldintzak betetzen ez dituzten hautagaiak. -

HIRUGARRENA. MERITUAK.

Hautaketa-prozesuaren dagokion fasean honako hauek baloratuko dira meritu gisa:

- A) Frantsesera jakitea eta/ala lanpostuaren betekizun espezifikoean eskatutakoa baino maila altuagoa izatea edo beste hizkuntza batzuk jakitea.
- B) Antzeko eginkizunetan esperientzia.
- C) Lanpostuarekin zerikusia duten beste titulu akademiko batzuk.

LAUGARRENA.PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA.

Hautagaiak dagokion prozesuan onartuak izateko eskaera aurkeztu beharko dute, atxikitako Eranskinean jasotako ereduaren arabera. Horretarako, 15 egun naturaleko epea izango dute, deialdi hau prentsan argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epea, hortaz, **2019ko urtarilaren 14tik 2019ko urtarilaren 28ra arte doa, zehazki.**

Eskabideak OTEIC Taldearen bulegoetan aurkeztuko dira, Igeldo eraikinaren 1. solairuan, Donostiako Zuatzu Enpresa Parkean, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 18:00etara arte jendearentzako ordutegian (urtarrilaren 21ean izan ezik, egun horretan itxita egongo baitira udalerriko jai eguna izateagatik).

Epe barruan eta adierazitako lekuan aurkezten diren eskabideak baino ez dira onartuko, eta baldintza hori betetzen ez duten guztiak baztertuko dira.

Eskabidean, hautagaiak adieraziko du deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela parte hartzeko eskabideak aurkezteko epemugan.

NAN txartela edo nortasun agiri baliokide baten eta bigarren oinarriko C) atalean (C1-Prestakuntza eta C2-Hizkuntzak) aipatzen diren tituluaren fotokopiak erantsiko dira. Eskatutako dokumentazioaren fotokopia arruntak onartuko dira. Hala ere, SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA-k beretzat gordetzen du aurkeztutako dokumentazioaren/informazioaren egiazkotasuna konprobatzeko eskubidea eta egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten pertsonak hautatze-prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu automatikoki.

4. fasean dokumentazio originala eskatuko da, aurkeztutakoarekin parekatzeko, bai eta merituak baloratzeari buruzko dokumentazioa ere, hautaketa-prozesuan zehar zehaztutako moduan eta epean egiaztatuko dena. Originala eta fotokopia bat ez etortzea hautaketa-prozesutik baztertzeko arrazoia izango da.

Onartzeko eskaerak ez badaude eskatutako agiriarekin behar bezala egiaztatuta, enpresak erabaki lezake hautaketa-prozesutik baztertzeari, uste badu ezinezkoa dela haien zuzentzea.

BOSGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, hautaketa-prozesu bakoitzean onartu eta baztertu diren hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da SAN SEBASTIÁN TURISMO- DONOSTIA TURISMOA SAREN webgunean, eta baztertu izanaren arrazoiak azalduko dira.

Baztertutako hautagaiak erreklamazioak egin edo akatsak zuzen ditzakete, zerrendan bertan adierazitako moduan, behin behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo 2 egunetan zehar.

Alegazioak SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAREN Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu eta, behin ebatzita, Hautaketa Prozesu bakoitzean onartu eta baztertu diren hautagaien behin-betiko zerrenda argitaratuko du.

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.

6.1 Gerentziazko Zuzendaritzak, Antolakuntza eta Administrazio arduradunak eta sozietatearen langileen ordezkariak Hautatze Batzorde bat osatuko dute, hautaketa-prozesua kudeatzeko eta, batez ere, aurkeztutako eskaerak baloratzeko helburuz, bai eta hautaketa-prozesuko fase ezberdinetako proba eta merituak kalifikatzeko ere.

Hautatze Batzordea arduratuko da hautaketa-prozesuaren objektibotasuna ziurtatzeaz. Era berean, Batzordeak ahalmena dauka prozesuan zehar sortzen diren zalantzak ebazteko eta deialdia arau hauen arabera garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, baita arauak aurreikusten ez dituzten kasuetan hartu beharreko irizpideak ezartzeko ere.

Hautaketa Batzordeak ariketa idatzien edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko neurri egokiak hatuko ditu; halaber, haiek zuzentzean azterketa-egileen izenak ere ezkutuan gordeko direla bermatuko du. Horrez gain, fase bakoitzaren emaitzak balioztatuko ditu, gerta daitezkeen gorabeherak konponduz.

Hautaketa Batzordeak aholkulariak edo enpresa espezializatuak kontratatu ahal izango ditu probak eta kudeaketak egiteko, adibidez, hautagaitzak jasotzeko, probak diseinatzeko eta gauzatzeko, kasu batzuetan balorazioak egiteko, eta abar.

Prozesuan zehar egon litezkeen jakinarazpenak egiteko eta gainerako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordeak hemen izango du egoitza:

Antolakuntza eta Administrazio arloa
SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA Boulevard 20003 -
Donostia / San Sebastián

6.2 Hautaketa-prozesuaren garapenarekin zerikusia duen informazio guztia www.sansebastianturismo.com webgunean argitaratuko da..

Argitalpen honek interesdunei egiten zitzaien jakinarazpen pertsonala ordezkatzeko du, eta eragin berbera izango du.

6.3. Honakoak dira hautaketa-prozesuaren faseak:

1. FASEA: Ezagutza-proba: Hainbat proba teoriko eta/edo praktikoa egingo dira, San Sebastian Turismo- Donostia Turismoaren erabiltzaileari emateko informazio turistiko kulturala eta baliabideekin, enpresak eskaintzen dituen zerbitzu turistiko eta produktuekin eta beteko den lanpostuak eskatzen duen kudeaketa administratiboarekin zerikusia dutenak. **20 puntu jasoko dira gehienez. Gutxienez 10 puntu lortu behar dira fase hau gainditzeko.**

2. FASEA: Trebetasunen analisia: Proba psikoteknikoak egingo dira hautagaien lanpostuaren profileen eskatutako gaitasunak eta jarrerak dituzten ala ez baloratzeko. **25 puntu jasoko dira gehienez. Gutxienez 12,50 puntu lortu behar dira fase hau gainditzeko.**

3. FASEA: Elkarrizketa eta analisi Pertsonala. Elkarrizketa/k eta/edo banakako eta/edo taldekako probak egingo dira, hautagaien nortasuna eta gaitasunak lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen baloratzeko. **30 puntu jasoko dira gehienez. Gutxienez 15 puntu lortu behar dira fase hau gainditzeko.**

4. FASEA: Merituak baloratzea. Gehienez 25 puntu jasoko dira hirugarren oinarrian aipatzen diren merituekin, betiere hartarako zabalduko den epean arrazoitu eta egiaztatu badira. Fase honen kalifikazioa jarraian adierazten den meritu-baremoaren arabera lortutako puntuen batura izango da:

A) Atzerriko hizkuntzak jakitea: gehienez 13 puntu lortu ahal izango dira, honako banaketaren arabera:

- Frantsesera jakitea: gehienez 10 puntu.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea lanpostuaren betekizun espezifikoetan eskatutakoa baino maila altuagoa edo beste hizkuntza batzuk jakitea: gehienez 3 puntu.

B) Antzeko eginkizunetan esperientzia: gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira. Kontuan hartuko da esperientzia berdina edo antzekoa izatea postuaren erantzukizun-maila eta edukiei dagokionez, honako alderdietan: Informazio turistikoa eta kulturala, produktu eta zerbitzu turistikoen sustapena eta salmenta eta/edo kudeaketa administratiboa

Hautaketa Batzordeak urte batetik beherako denboraldiak zenbatu ahal izango ditu. Lanaldi partzialen kasuetan, hautagaiak lanpostuan benetan igaro duen denborari proportzionalki egingo da zenbaketa.

C) Lanpostuarekin zerikusia duten beste titulu akademiko batzuk.: gehienez 2 puntu lortu ahal izango dira.

Lehen, bigarren eta hirugarren faseak baztertzailak izango dira, eta puntuazio minimoa lortu beharko da prozesuan jarraitu ahal izateko..

Lehen, bigarren eta hirugarren faseak egiteko ordena aldatu egin daiteke, eta baliteke zenbait fase egun berean egitea.

Beharrezkoa bada, probak egokitu egingo dira dibertsitate funtzionala pairatzen duten pertsonentzat, aldeaz aurretik hala eskatzen badute, eskabidean egokitzapen berezia behar dutela justifikatzen badute eta Hautaketa Batzordeak eskatutakoa ontzat hartzen badu. Modu horretan, pertsona horiek aukera-berdintasuna izango dute gainerako hautagaiekin, betiere probaren edukia hutsaldu gabe eta eskatzen den trebetasun maila gutxitu gabe.

6.4 Interesdunek egoki deritzoten alegazioak egin ahal dizkiete Hautaketa Batzordeak hartutako erabakiei, hark ezarritako epeen barruan. Erreklamatzeko epea bukatuta, erabakiak behin betikoak izango dira, eta ezin izango da haien edukia aurkaratu gero.

ZAZPIGARRENA. LAN POLTSAN SARTZEA.

Behin hautaketa-prozesua bukatuta, prozesuaren fase guztiak gainditu dituzten parte-hartzaileen zerrenda argitaratuko da, handienetik txikienera ordenatuta, lortu duten guztizko azken puntuazioaren arabera. Kalifikazio hori hautaketa-prozesua osatzen duten fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen batura izango da.

Hautaketa Batzordeak aukeratzen dituen izangaiak Sozietatean lan egiten hasiko dira bere antolaketa-premia efektiboekin bat etorriz eta bere araudiaren menpe.

Hautaketa-prozesua gainditu, baina eskainitako postuetan lan egiten hasten ez diren izangaiak Sozietatean iraunkorrak ez diren langile premia ez iraunkorrak betetzeko **INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO ERAGILEEN** lan-poltsan sartuko dira. Lan-poltsa hau sortuta, hautaketa-prozesua bukatu bezain laster automatikoki ondorerik gabe geratuko dira aurreko informazio eta harrera kudeatzaileen (lehen horrela deitzen zitzaion postu berdinari) lan-poltsak.

Deialdi honen bidez sortuko den Lan-poltsa sozietatearen antolaketa-beharrak direla eta beste deialdirik egiten ez den bitartean egongo da indarrean.

ZORTZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Hautaketa-prozesuan parte hartzean, **SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SAK** tratatu egingo ditu prozesuan parte hartzen duten pertsonen emandako datuak.

Apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduaren eta datuen zirkulazio askearen kontra babestekoa) 13. artikulua ezarritakoaren arabera, oinarri hauei erantsitako partaidetza-eskabidearen ereduak parte hartzeko eskaera egiten duten hautagaien datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa dauka.

Hautaketa-prozesuan onartzeko eskaeraren inprimakia aurkeztean, interesdunak baimena ematen du datu pertsonalak tratatzeko, hartan adierazten diren helburuetarako.

Onartuen eta baztertuen zerrendak eta parte-hartzaileek prozesuaren fase ezberdinetan lortutako emaitzak argitaratzeko, hautagaien identitatea NAN zenbakiaren bidez adieraziko da.

Donostia, 2018ko azaroaren 8a



Manu Narváez
Zuzendaria / gerentea

ERANSKINA - ONARTZEKO ESKAERA INPRIMAKIA

SAN SEBASTIAN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA-REN INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO ERAGILEEN BI PLAZA BETETZEKO ETA LANGILE PREMIA EZ IRAUNKORRAK BETETZEKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA.

SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SAREN Antolakuntza eta Administrazio Sailera

Eskatzailea:

IZEN-ABIZENAK		NAN (idatzi hizkia)	
		JAIOTEGUNA	
HELBIDEA (kalea edo plaza, zenbakia eta solairua)	POSTA KODEA	BIZITOKIAREN UDALERRIA	
	PROBINTZIA		
MUGIKORRA	TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

"X" BATEKIN MARKATU ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTEN DUZUN:

- Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasun agiri baliokide baten fotokopia.
- Bigarren oinarriaren C.1) atalean eskatutako titulu ofiziala edo titulazioa eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.
- Bigarren oinarriaren C.2) atalean eskatutako hizkuntza-ezagutzak egiaztatzekeo ziurtagiri ofizialak.
- Beste batzuk. Zehaztu zein:

PRESTAKUNTZA (Eskatzailearen titulazio akademiko ofiziala). Tituluak:

LANBIDE ESPERIENTZIA

HASIERA	AMAIERA	ENPRESA	LANPOSTUA ETA FUNTZIOAK

HIZKUNTZAK

HIZKUNTZA	MAILA (A1, A2, B1, B2, C1, C2 europar mailak)	LORTUTAKO AKREDITAZIOA

Ezintasunen bat legez aitortuta duzu?

Bai Ez

Probak egiteko egokitzapen bereziaren eskaera, hala badagokio, hautaketa batzordeak baloratu dezan:

--

Inprimaki hau sinatzean:

- (i) Eskatzen dut deialdian eta hautaketa-prozesuan onartua izatea, eta adierazten dut goian jasotako datuak egiazkoak direla eta bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen ditudala; eta
- (ii) Aitortzen dut deialdia eta hautaketa-prozesua arautzen duten baldintzak onartu eta ezagutzen ditudala.
- (iii) Berariaz baimena ematen dut nire datuak erabil ditzaten hautaketa-prozesuan parte hartzeko eta, hala badagokio, Lan Poltsaren parte izateko.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Tratamenduaren arduraduna	SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA
Tratamenduaren helburua	Hautaketa-prozesua kudeatzea eta Lan-poltsa sortzea
Tratamendua legezketzea	Interesdunaren baimena
Lagapenen edo eskualdaketen hartzaileak	Onartu, uko egin eta baztertu diren hautagaien zerrendak eta hautaketa-prozesuaren garapena www.sansebastianturismo.com webgunearen kontratazioari buruzko atalean argitaratuko dira Emandako datuak hautaketa-prozesua kudeatzeko kontrataturiko langileak hautatzeko enpresak tratatuko ditu.
Interesdunen eskubideak	Datuak eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, eta baita beste eskubide batzuk ere, agiri honen atzealdean jasotako informazioan azaldu bezala

Data:/...../.....

Eskatzailearen sinadura:

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

- **Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?**
 - Arduraduna: SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA
 - IFZ: A-20188884
 - Helbidea: Boulevard, 8, PK - 20003 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
 - Telefonoa: 943 48 11 66
 - Helbide elektronikoa: sansebastianturismo@donostia.eus

- **Zertarako tratatuko ditu SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK zure datu pertsonalak?**

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK hautaketa-prozesu hau kudeatzeko eta Lan-poltsa sortzeko tratatuko ditu zure datu pertsonalak.

- **Zenbat denboraz gordeko ditu SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK zure datu pertsonalak?**

Hautagaiak emandako datu pertsonalak hautaketa-prozesuak iraun bitartean eta Lan-poltsa berri bat sortu arte gordeko dira.

- **Zer legitimazio dauka SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK zure datu pertsonalak tratatzeko?**

Datu pertsonalak tratatzeko oinarri legala hautagaiaren baimena da. Ildo horretatik, irizten zaio interesdunak, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera egiten duenean, baimena ematen duela.

Beharrezkoa da zuk zure datu pertsonalak ematea hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko.

- **Nori jakinaraziko zaizkio datu pertsonalak?**

Onartu, uko egin eta baztertu diren hautagaien zerrendak eta hautaketa-prozesuaren garapena www.sansebastianturismo.com webgunearen kontratazioari buruzko atalean argitaratuko dira.

Emandako datuak hautaketa-prozesua kudeatzeko kontratatuturiko langileak hautatzeko enpresak tratatuko ditu.

- **Zer eskubide dituzu datu pertsonalak ematen dituzunean?**

Eskubide hauek dituzu zure datu pertsonalei dagokienez:

 - a. **Atzitzeko eskubidea:** jakin dezakezu SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK zure datu pertsonalak tratatzen dituen ala ez.
 - b. **Zuzentzeko eskubidea:** zehaztugabeak edo osatugabeak diren datuak zuzentzea eska dezakezu.
 - c. **Ezabatze eskubidea:** zure datu pertsonalak ezabatzea eska dezakezu, dagoeneko bildu ziren helburuetarako behar ez direnean.
 - d. **Tratamendua mugatzeko eskubidea:** zenbait egoeratan, datu pertsonalen tratamendua mugatzea eska dezakezu, eta kasu horretan, SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK erreklamazioak burutzeko edo haietatik defendatzeko erabiliko ditu soilik.
 - e. **Aurka egiteko eskubidea:** baldintza jakinetan eta zure egoera zehatzarekin lotutako arrazoiengatik, zure datu pertsonalak tratatzeari kontra egin ahal diozu. Kasu horretan, SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SAK zure datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta haiak tratatzea halabeharrezkoa bada edo erreklamazioak burutzeko edo haiengatik defendatzeko behar baditu.
 - f. **Datuak eramateko eskubidea:** zure datuak modu automatizatuan tratatzen direnean eta tratamendua baimen batean edo kontratu baten exekuzioan oinarritzen denean, eskubidea izango duzu eman dizkiguzun datu pertsonalak formatu egituratu batean jasotzeko, erabilera arruntekoa eta mekanikoki irakurtzeko modukoa, eta baita zure datuak beste arduradun bati transmititzeko ere.
 - g. **Baimena atzera botatzeko eskubidea:** zure datuak tratatzeko baimena edozein unetan atzera botatzeko eskubidea duzu, eta horrek ez dio atzera bota aurretik emandako baimenari zilegitasunik kenduko.
 - h. **Erreklamazioa aurkezteko eskubidea:** Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazioa aurkez dezakezu, batez ere zure eskubideak gauzatu ezin izan dituzunean. Horretarako, agentziaren egoitza elektronikora jo dezakezu (www.agpd.es), edo haren helbidera idazkia bidali (Jorge Juan kalea, 6, 28001-Madril).

Hemengo a-g atalen bitartean adierazitako eskubideak gauzatzeko, idazkia bidali dezakezu, helbide honetara:

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA
Nori: Datuen tratamenduaren arduraduna
Boulevard, 8 - 20003 - Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Helbide elektronikoa: sansebastianturismo@donostia.eus